

Arte eszenikoak Gasteizen, erein eta jaso

Unai eta Garazi Lopez de Armentia neba-arrebek arte eszenikoen gaineko ikasketak egin zituzten Euskal Herritik kanpo. Sorterrira itzuli eta bertan jarduteko, elkarrekin lan egitea erabaki zuten. Proiektuak urte eta erdi badu ere, abenduan zabaldu zizkioten Baratza aretoko ateak publikoari. Bertako antzerki eta dantza garaikide taldeek euren lanak erakustea, ikertzea eta garatzeko tresna izatea lukete helburu.

| MYRIAM GARZIA |

“ARANTZABELA IKASTOLAN ikasi genuen eta bertako jolas-tokiari baratza deitzen genion”, dio Garazi Lopez de Armentia aretoko sortzaile eta kudeatzaileak. “Jolasteko lekua da beraz Baratza, horrela ulertzen dugulako gure lana. Baina jolasa, haurrek egiten duten moduan ulertua, eroriz eta altxatuz, gauzei mamia atera arte”.

Baratzan arte eszenikoen ikerketa dute xede nagusia, prozesua, eta kooperatiba moduan antolatuta daude. Neba-arrebek ez ezik Jemima Cano aholkulariak ere garrantzi handia du enpresan.

Orain dela urte eta erdi, proiektua abiatu zenean, taula beltza besterik ez zegoen aretoa. Orain 3 esparrutan banatuta dago 300 metro koadroko egoitza. Areto handiak, Kuia deituak, 5x6ko eszenatokia du, baina ez du antzestoki formalaren antolamenterik. Jendea lurrian eseri liteke nahi izanez gero, eta 80 laguntzako tokia du. Formatu txiki eta ertaineko ikus-entzunezkoak eskaintzea da plana. Mediateka eta elkargunea ere badute.

Gasteizko sortzaileei eskainia

Garazi Lopez de Armentia ustez, Gasteizen bada zer egin eta zer ikusi arte eszenikotan. “Lan handia dago egiteko, hain zuzen ere, horretarako sortu da Baratza, agente artistiko-



ek izan behar dutelako kultura kudeatu eta landuko dutenak. Bestalde, gauza guztiak aldi berean gertatzen dira normalean, plangintza kultural baten falta dagoelako, hain justu”.

Antzerki ikastaroak eta tailerrak ere antolatzen dira Baratzan. “Hutsune haundia dago, goi-mailako formakuntzan, batik bat. Gure nahia bada arlo hau apur bat sendotzea baina ez dugu formakuntza osorik edukiko. Badugu bestalde, ikerkuntza laborategia ere. Dagoen hutsunea ez dago guztiz estaltzerik, baina profesionalak elkartzeko espazioa behintzat izango da”.

Eusko Jaurlaritzako Sormen Lantegiak programaren laguntza jaso du Baratzak. Aretoko kudeatzaileen ustez, “laguntza publikoa beharrezkoa da, baina ez dugu uste artetik bizi gare-nok laguntzetara ohitu behar dugunik. Antzokiak betetzea lortu behar da, eta horretarako instituzioen beharra dugu, baina diruz ez ezik, heziz ere lagundu behar da, kulturara hurbiltzeko baliabideak ipiniz. Pentsamoldea aldatu behar da”. Baratzakoek antolatutako lehen ekintza mahai-inguru bat izan zen. *Publikoa desesperazioz bilatzen* zuen izenburua. Mahai-inguru hartan, publikoa egon badagoela ondorioztatu zuten, harengana heltzea dela gakoa. Eta harengana iritsitakoan, publikoa aktiboa eta fidela dela. ■

